Kontratuen erregistroa 2024ko maiatzean

KONTRATATUTAKO PERTSONAK

2024ko maiatzean 43.825 pertsona kontratatu dira, iazko maiatzean baino 1.074 gutxiago (% 2,4ko beherakada). Apirilarekin alderatuta, berriz, 3.515 pertsona gehiago kontratatu dira (% 8,72ko gorakada).

• SEXUA

Maiatzean 22.337 gizon eta 21.488 emakume kontratatu dira. Aurreko urtearekin alderatuta, kontratazioak behera egin du bai gizonen artean bai emakumeen artean, zertxobait gutxiago emakumeen artean; % 2,2 (-488 emakume) eta % 2,6 gizonen artean (-586). Hileko konparaketan, gizonen kontratazioak % 11,4 egin du gora (+2.288); emakumeen kontratazioak, berriz, % 6,06 egin du gora (+1.227).

• ADINA

Kontratatutako pertsonen batez besteko adina 35,88 urtekoa da, eta txikiagoa da gizonen artean (35,64) emakumeen artean (36,13) baino. Kontratatutako pertsona gazteenak Gipuzkoan izan dira (35,65 urte), eta helduenak, berriz, Bizkaian (36,07).

Laguntza-teknikarien profilekoak dira gazteenak, batez beste 33,23 urte baitituzte. Helduenak zuzendaritza-lanetarako kontratatutakoak dira, 44,73 urteko batez bestekoarekin. Lanaldi partzialerako kontratatutako pertsonak lanaldi osorako kontratatutakoak baino gazteagoak dira (34,43 urte eta 36,67 urte, hurrenez hurren). Kontratuaren iraupenaren arabera, kontratu mugagabeak dituzten pertsonen batez besteko adina aldi baterako kontratuak dituztenen batez bestekoa baino handiagoa da (35,98 vs 35,83).

• JATORRIA

2024ko Maiatzean kontratatutako pertsonen % 21,9k atzerriko nazionalitatea du, iazko maiatzean baino puntu 1 gehiago. Kontratatutako atzerritar guztietatik, % 51,7k Latinoamerikako herrialderen bateko nazionalitatea dute, % 15,7k Afrika iparraldekoa, % 10,4k Saharaz hegoaldeko Afrikakoa, % 7,2k Europako Erkidegotik kanpoko herrialderen batekoa, % 7k Europako Erkidegokoa den herrialde batekoa eta, azkenik, % 7k Asiakoa. Bertakoak (35,79 urte) gazteagoak dira atzerritarrak (36,18 urte) baino. Kontratazio-bolumen jakin bat duten atzerritarren artean, Latinoamerikatik etorritakoak dira gazteenak 35,54 urterekin, eta Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialderen batetik etorritakoak, berriz, helduenak, 38,17 urterekin.

Azken hilabetean, kontratazio-maila esanguratsua duten jatorri guztietako pertsonen kontratazioak egin du gora. Balio absolutuetan, gehien igo direnak Latinoamerikatik etorritako pertsonak dira, 435 pertsona gehiagorekin (+%40,7); balio erlatiboetan, gehien hazi direnak Europa Erkidegotik etorritako pertsonak dira, % 41eko hazkundearekin (202 pertsona gehiago).

Urteko erlazioan, kontratazio esanguratsua duten jatorrien artean, balio absolutuetan eta erlatiboetan gehien jaitsi den jatorria Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritako pertsonena da, % 8,4 jaitsi baita eta 91 pertsona gutxiago kontratatu baitira. Aldiz, balio absolutuetan zein erlatiboetan gehien hazi den taldea Latinoamerikako pertsonen taldea da (+251 pertsona eta % 5,3ko igoera).

• PRESTAKUNTZA-MAILA

Kontratatutako pertsonen % 44,3k oinarrizko prestakuntza-maila du, gehienez ere derrigorrezko hezkuntza egin dute, % 22,5ek batxilergoko ikasketak ditu, % 16,5ek Lanbide Heziketakoak eta % 16,4k unibertsitatekoak.

Hileko erreferentzian, handitu egin da ikasketa profil guztietako pertsonen kontratazioa. Balio absolutuetan zein erlatiboetan gehien hazi direnak derrigorrezko ikasketak dituzten pertsonak dira, % 12,9 hazi baitira (+2.219 pertsona).

Urteko erreferentzian, behera egin dute ikasketa-profil guztietan kontratatutako pertsonek, derrigorrezko ikasketak dituztenek izan ezik, horietako 155 pertsona gehiago kontratatu baitira (+%0,8). Balio absolutuetan zein erlatiboetan, LHko ikasketak dituzten pertsonen kontratazioan dago beherakada handiena, 480 pertsona gutxiagorekin eta % 6,2ko ehuneko-jaitsierarekin.

KONTRATUEN KOPURUAK

Maiatzean, EAEn 62.794 kontratu sinatu dira, horietatik 14.705 mugagabeak dira (guztietatik % 23,4). Ehuneko horrek 2022. urtearen hasieran lan-erreforma onartu eta aplikatu ondoren izandako joerari jarraitzen zaio. Hala ere, 0,9 puntu jaitsi da apirilarekin alderatuta, eta 2,7 puntu 2023ko maiatzarekin alderatuta. Mugagabeen ehunekoa handiagoa da gizonen artean: % 25,8 emakumeen artean baino (% 21,1).

Kontratazioa % 13,4 hazi da apirilaren aldean (7.422 kontratu gehiago). 2023ko maiatzarekin alderatuz, % 2,4 murriztu da (1.573 kontratu gutxiago).

• JARDUERA EKONOMIKOA

Joan den hilabetearekin alderatuta, kontratazioak gora egin du profil gehienetan. Kontratazioan igoera handienak izan dituzten jarduerak ostalaritza (+2.228), lehen sektorea (+1.199) eta osasun-jarduerak (+994) izan dira. Jaitsierarik handienak, aldiz, finantza-jardueretan (-44) eta higiezinetan (-10) izan dira.

Iazko datuekin alderatuta, hurrengo profilak kontratatzean eman dira igoerarik handienak: informazioa (+945), ostalaritza (+558) eta aisialdiko zerbitzuak (+112). Aitzitik, kontratazioak gehien murriztu diren jarduerak administratiboak (-716), garraioa (-572) eta sanitarioak (-536) izan dira.

• OKUPAZIOA

Hil arteko bilakaeran, kontratazioak gora egin du okupazio guztietan, enplegatu administrarien profilean izan ezik, 131 kontratutan jaitsi baitira (% 3,83 gutxiago). Balio absolutuetan, zerbitzu-kualifikatuetan igo da gehien kontratazioa, 2.701 kontratutan, % 14,95eko igoerarekin; balio erlatiboetan, berriz, lehen mailako kualifikatuen kontratuetan izan da hazkunderik handiena, % 104,1 gehiagorekin (+178 kontratu).

Iazko hil beraren aldean, kontratazio kopurua jaitsi egin da okupazio gehienetan; salbuespenak zerbitzuetako kualifikatuak (+%0,8,+159 kontratu) eta zuzendaritza-profilen kontratuak (+25 kontratu, +%18). Jaitsierarik handiena, guztizko balioetan, kualifikatu gabeek izan dute, 814

kontratu gutxiagorekin (%4,9ko beherakada); balio erlatiboetan, jaitsiera handiena lehen sektoreko kualifikatuen kontratazioan gertatu da, % 19,4ko beherakadarekin (-84 kontratu).

• KONTRATAZIO-MOTA

Hilabete honetan, berriz ere, mugagabeen tasa nabarmentzen da; izan ere, 2022ra arte % 10etik behera egon ohi zen tasa hau, eta kasu honetan % 23,4ra iritsi da. % 20tik gorako tasak ohikoak izaten ari dira 2022ko hasieran aplikatutako lan-erreformaren ondoren.

2024ko maiatzean sinatutako kontratuen % 35,9 lanaldi partzialekoak dira (aurreko hilean baino 1,4 puntu gutxiago), % 46,6 emakumeen kasuan eta % 24,8 gizonen kasuan. Kontratazio-mota horren arazo nagusia da gehienak ez direla borondatezkoak, eta agerian uzten dutela ezarritako kontratu-harremanaren kalitatea eskasa dela. Kontratu mugagabeen % 31,4 lanaldi partzialekoak dira.

Lanaldi partzialeko kontratazioaren ehuneko handiena duten jarduera ekonomikoak, kontratazio-balio esanguratsua duten jardueren artean, honako hauek dira: ostalaritza (% 63,8), beste zerbitzuak (% 49,8) eta administrazio-jarduerak (% 46,8). Okupazio-profilen arabera, lanaldi partzialeko kontratazioagatik gehien nabarmentzen dena zerbitzuetako langileena da (% 54,7), eta gutxien, lehen sektoreko langile kualifikatuena (% 2).

• LURRALDE HISTORIKOAK

Lurralde historikoen arabera, kontratazioaren % 20,2 Araban sinatu da, % 48,9 Bizkaian eta gainerako % 30,9 Gipuzkoan.

Hil honetan, Araban 2.459 kontratu gehiago sinatu dira, eta erlatiboki gehien igo den Lurralde Historikoa da (% 24); Gipuzkoan 1.770 kontratu gehiago egin dira (% 10 gehiago) eta Bizkaian 3.193 kontratu gehiago (+%11,6).

Aurreko urtearekin alderatuta, Araban 782 kontratu gutxiago sinatu dira (% 5,8ko jaitsiera), eta lurralde horretan murriztu da gehien ehunekotan eta balio absolutuetan kontratazioa; Bizkaian % 0,4 jaitsi da (112 kontratu gutxiago) eta Gipuzkoan 679 kontratutan egin du behera (% 3,4).

• BESTEREN ZERBITZUAN JARTZEKO KONTRATUAK (ABLE)

Maiatzean sinatutako kontratuen % 23,5 aldi baterako laneko enpresen bidez egin dira. ABLE-en bidezko kontratazioa askoz ohikoagoa da gizonen artean emakumeen artean baino; lehenengoen artean, kontratuen % 30,3 enpresa mota horren bidez egin da, eta emakumeen artean, berriz, kontratazioen % 16,5 soilik izan dira ABLE bidez.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, ABLE baten bidez egindako kontratazioak % 6,6 egin du gora (636 kontratu gehiago), eta, 2023ko maiatzarekin alderatuta, % 0,7 egin du gora (+67 kontratu).


Urtarriletik maiatzera kontratu mugagabeen metatua
80.000
70.000
60.000
50.000
40.000
30.000
20.000
10.000
0
24.413
27.005
30.360
35.007
33.666
23.968
30.835
70.152
75.534
71.255
2015
2016
2017
2018
2019
2020
2021
2022
2023
2024

Kontratuen erregistroa 2024ko maiatzean

		Mai-2024	Api-2024	Mai-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Mota	Mugagabea	14.705	13.565	16.809	1.140	8,40	-2.104	-12,5
	Aldi baterakoa	48.089	41.807	47.558	6.282	15,03	531	1,1
	Guztira	62.794	55.372	64.367	7.422	13,40	-1.573	-2,4
	Mugagabeen %	23,4%	24,5%	26,1%	-1,08		-2,70	
Sexua	Gizona	31.023	26.952	31.872	4.071	15,10	-849	-2,7
	Emakumea	31.771	28.420	32.495	3.351	11,79	-724	-2,2
	Guztira	62.794	55.372	64.367	7.422	13,40	-1.573	-2,4
	Emakumeen %	50,6%	51,3%	50,5%	-0,73		0,11	
Mugagabea	Gizona	8.004	7.306	9.162	698	9,55	-1.158	-12,6
	Emakumea	6.701	6.259	7.647	442	7,06	-946	-12,4
	Guztira	14.705	13.565	16.809	1.140	8,40	-2.104	-12,5
Aldi baterakoa	Gizona	23.019	19.646	22.710	3.373	17,17	309	1,4
	Emakumea	25.070	22.161	24.848	2.909	13,13	222	0,9
	Guztira	48.089	41.807	47.558	6.282	15,03	531	1,1
Guztira	Gizona	31.023	26.952	31.872	4.071	15,10	-849	-2,7
	Emakumea	31.771	28.420	32.495	3.351	11,79	-724	-2,2
	Guztira	62.794	55.372	64.367	7.422	13,40	-1.573	-2,4
Mugagabeen tasa	Gizona	25,8%	27,1%	28,7%	-1,31		-2,95	
	Emakumea	21,1%	22,0%	23,5%	-0,93		-2,44	
	Guztira	23,4%	24,5%	26,1%	-1,08		-2,70	
Lanaldi partziala	Mugagabea	4.614	4.460	5.193	154	3,45	-579	-11,1
	Aldi baterakoa	17.903	16.187	17.146	1.716	10,60	757	4,4
	Beste batzuk	40.277	34.725	42.028	5.552	15,99	-1.751	-4,2
	Guztira	62.794	55.372	64.367	7.422	13,40	-1.573	-2,4
	LP tasa	35,9%	37,3%	34,7%	-1,43		1,15	
Lanaldi partziala	Gizona	7.703	7.158	7.323	545	7,61	380	5,2
	Emakumea	14.814	13.489	15.016	1.325	9,82	-202	-1,3
	Guztira	22.517	20.647	22.339	1.870	9,06	178	0,8
	Gizonen tasa	24,8%	26,6%	23,0%	-1,73		1,85	
	Emakumeen tasa	46,6%	47,5%	46,2%	-0,84		0,42	
	Tasa guztira	35,9%	37,3%	34,7%	-1,43		1,15	
Prestakuntzakoak	Prestakuntzakoak	31	31	24	0	0,00	7	29,2
	Beste batzuk	62.763	55.341	64.343	7.422	13,41	-1.580	-2,5
	Guztira	62.794	55.372	64.367	7.422	13,40	-1.573	-2,4
	Prestakuntzakoak (%)	0,0%	0,1%	0,0%	-0,01		0,01	
L. historikoa	Araba	12.687	10.228	13.469	2.459	24,04	-782	-5,8
	Bizkaia	30.695	27.502	30.807	3.193	11,61	-112	-0,4
	Gipuzkoa	19.412	17.642	20.091	1.770	10,03	-679	-3,4
	EAE	62.794	55.372	64.367	7.422	13,40	-1.573	-2,4
Gizonak	Lehen sektorea	1.400	375	1.781	1.025	273,33	-381	-21,4
	Erauzketa-industriak	8	11	6	-3	-27,27	2	33,3
	Manufaktura-industriak	6.283	5.998	6.502	285	4,75	-219	-3,4
	Energia	7	4	12	3	75,00	-5	-41,7
	Ura	263	250	282	13	5,20	-19	-6,7
	Eraikuntza	1.609	1.440	1.812	169	11,74	-203	-11,2
	Merkataritza	2.996	2.739	2.966	257	9,38	30	1,0
	Garraioa	3.465	3.336	3.976	129	3,87	-511	-12,9
	Ostalaritza	4.232	3.370	3.777	862	25,58	455	12,0
	Informazioa eta komunikazioa	1.888	1.573	1.418	315	20,03	470	33,1
	Finantzak eta aseguruak	94	127	105	-33	-25,98	-11	-10,5
	Higiezinen sektorea	18	24	37	-6	-25,00	-19	-51,4
	Zientifikoak eta teknikoak	837	682	822	155	22,73	15	1,8
	Administraziokoak	2.553	2.236	2.844	317	14,18	-291	-10,2
	Administrazio publikoa	443	349	420	94	26,93	23	5,5
	Hezkuntza	924	926	973	-2	-0,22	-49	-5,0
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	1.597	1.412	1.808	185	13,10	-211	-11,7

Kontratuen erregistroa 2024ko maiatzean

		Mai-2024	Api-2024	Mai-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Arte- eta jolas-jarduerak	1.956	1.637	1.854	319	19,49	102	5,5
	Beste zerbitzu batzuk	403	406	381	-3	-0,74	22	5,8
	Etxeetako jarduerak	46	55	96	-9	-16,36	-50	-52,1
	Lurraldez kanpoko erakundeak	1	2	0	-1	-50,00	1	
	Guztira	31.023	26.952	31.872	4.071	15,10	-849	-2,7
Emakumeak	Lehen sektorea	236	62	238	174	280,65	-2	-0,8
	Erauzketa-industriak	2	3	1	-1	-33,33	1	100,0
	Manufaktura-industriak	2.206	2.237	2.270	-31	-1,39	-64	-2,8
	Energia	5	11	13	-6	-54,55	-8	-61,5
	Ura	50	35	39	15	42,86	11	28,2
	Eraikuntza	139	123	148	16	13,01	-9	-6,1
	Merkataritza	3.807	3.704	3.922	103	2,78	-115	-2,9
	Garraioa	812	919	873	-107	-11,64	-61	-7,0
	Ostalaritza	6.580	5.214	6.477	1.366	26,20	103	1,6
	Informazioa eta komunikazioa	1.441	1.187	966	254	21,40	475	49,2
	Finantzak eta aseguruak	132	143	121	-11	-7,69	11	9,1
	Higiezinen sektorea	51	55	94	-4	-7,27	-43	-45,7
	Zientifikoak eta teknikoak	838	788	846	50	6,35	-8	-0,9
	Administraziokoak	3.019	2.889	3.444	130	4,50	-425	-12,3
	Administrazio publikoa	715	561	776	154	27,45	-61	-7,9
	Hezkuntza	2.976	2.639	2.945	337	12,77	31	1,1
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	6.091	5.282	6.416	809	15,32	-325	-5,1
	Arte- eta jolas-jarduerak	1.138	1.105	1.128	33	2,99	10	0,9
	Beste zerbitzu batzuk	628	560	636	68	12,14	-8	-1,3
	Etxeetako jarduerak	902	900	1.137	2	0,22	-235	-20,7
	Lurraldez kanpoko erakundeak	3	3	5	0	0,00	-2	-40,0
	Guztira	31.771	28.420	32.495	3.351	11,79	-724	-2,2
Guztira	Lehen sektorea	1.636	437	2.019	1.199	274,37	-383	-19,0
	Erauzketa-industriak	10	14	7	-4	-28,57	3	42,9
	Manufaktura-industriak	8.489	8.235	8.772	254	3,08	-283	-3,2
	Energia	12	15	25	-3	-20,00	-13	-52,0
	Ura	313	285	321	28	9,82	-8	-2,5
	Eraikuntza	1.748	1.563	1.960	185	11,84	-212	-10,8
	Merkataritza	6.803	6.443	6.888	360	5,59	-85	-1,2
	Garraioa	4.277	4.255	4.849	22	0,52	-572	-11,8
	Ostalaritza	10.812	8.584	10.254	2.228	25,96	558	5,4
	Informazioa eta komunikazioa	3.329	2.760	2.384	569	20,62	945	39,6
	Finantzak eta aseguruak	226	270	226	-44	-16,30	0	0,0
	Higiezinen sektorea	69	79	131	-10	-12,66	-62	-47,3
	Zientifikoak eta teknikoak	1.675	1.470	1.668	205	13,95	7	0,4
	Administraziokoak	5.572	5.125	6.288	447	8,72	-716	-11,4
	Administrazio publikoa	1.158	910	1.196	248	27,25	-38	-3,2
	Hezkuntza	3.900	3.565	3.918	335	9,40	-18	-0,5
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	7.688	6.694	8.224	994	14,85	-536	-6,5
	Arte- eta jolas-jarduerak	3.094	2.742	2.982	352	12,84	112	3,8
	Beste zerbitzu batzuk	1.031	966	1.017	65	6,73	14	1,4
	Etxeetako jarduerak	948	955	1.233	-7	-0,73	-285	-23,1
	Lurraldez kanpoko erakundeak	4	5	5	-1	-20,00	-1	-20,0
	Guztira	62.794	55.372	64.367	7.422	13,40	-1.573	-2,4
Gizonak	<>	1	1	1	0	0,00	0	0,0
	Zuzendaritza	111	88	90	23	26,14	21	23,3
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	3.314	2.623	3.274	691	26,34	40	1,2
	Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak	3.270	2.890	3.596	380	13,15	-326	-9,1
	Administrazioko langileak	1.252	1.254	1.202	-2	-0,16	50	4,2
	Zerbitzuetako kualifikatuak	7.024	6.074	6.838	950	15,64	186	2,7

Kontratuen erregistroa 2024ko maiatzean

		Mai-2024	Api-2024	Mai-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Oinarrizko kualifikatuak	304	156	384	148	94,87	-80	-20,8
	Industriako kualifikatuak	3.281	2.939	3.308	342	11,64	-27	-0,8
	Operadoreak	3.728	3.601	3.956	127	3,53	-228	-5,8
	Kualifikatu gabeak	8.738	7.326	9.223	1.412	19,27	-485	-5,3
	Guztira	31.023	26.952	31.872	4.071	15,10	-849	-2,7
Emakumeak	<>	0	0	0	0,00		0,00	
	Zuzendaritza	53	53	49	0	0,00	4	8,2
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	5.305	4.369	5.533	936	21,42	-228	-4,1
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	2.418	2.272	2.247	146	6,43	171	7,6
	Administrazioko langileak	2.038	2.167	2.177	-129	-5,95	-139	-6,4
	Zerbitzuetako kualifikatuak	13.742	11.991	13.769	1.751	14,60	-27	-0,2
	Oinarrizko kualifikatuak	45	15	49	30	200,00	-4	-8,2
	Industriako kualifikatuak	411	473	466	-62	-13,11	-55	-11,8
	Operadoreak	683	632	800	51	8,07	-117	-14,6
	Kualifikatu gabeak	7.076	6.448	7.405	628	9,74	-329	-4,4
	Guztira	31.771	28.420	32.495	3.351	11,79	-724	-2,2
Guztira	<>	1	1	1	0	0,00	0	0,0
	Zuzendaritza	164	141	139	23	16,31	25	18,0
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	8.619	6.992	8.807	1.627	23,27	-188	-2,1
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	5.688	5.162	5.843	526	10,19	-155	-2,7
	Administrazioko langileak	3.290	3.421	3.379	-131	-3,83	-89	-2,6
	Zerbitzuetako kualifikatuak	20.766	18.065	20.607	2.701	14,95	159	0,8
	Oinarrizko kualifikatuak	349	171	433	178	104,09	-84	-19,4
	Industriako kualifikatuak	3.692	3.412	3.774	280	8,21	-82	-2,2
	Operadoreak	4.411	4.233	4.756	178	4,21	-345	-7,3
	Kualifikatu gabeak	15.814	13.774	16.628	2.040	14,81	-814	-4,9
	Guztira	62.794	55.372	64.367	7.422	13,40	-1.573	-2,4
ABLE	Gizonak	6.757	6.414	6.823	343	5,35	-66	-1,0
	Emakumeak	3.544	3.251	3.411	293	9,01	133	3,9
	Guztira	10.301	9.665	10.234	636	6,58	67	0,7
Pertsona-kopurua	Gizonak	22.337	20.049	22.923	2.288	11,41	-586	-2,6
	Emakumeak	21.488	20.261	21.976	1.227	6,06	-488	-2,2
	Guztira	43.825	40.310	44.899	3.515	8,72	-1.074	-2,4
	Derrigorrezko hezkuntzako ikasketak	19.393	17.174	19.238	2.219	12,92	155	0,8
	Batxilergoa	9.863	8.988	10.009	875	9,74	-146	-1,5
	LHko ikasketak	7.253	6.920	7.733	333	4,81	-480	-6,2
	Unibertsitate-ikasketak	7.178	7.068	7.612	110	1,56	-434	-5,7
	Atzerritarra	9.587	8.428	9.408	1.159	13,75	179	1,9
	Bertakoa	34.238	31.882	35.491	2.356	7,39	-1.253	-3,5
	<>	26	15	23	11	73,33	3	13,0
	Aberrigabea	60	45	45	15	33,33	15	33,3
	Europako Erkidegoa	695	493	729	202	40,97	-34	-4,7
	Erkidegokoa ez den Europa	670	590	716	80	13,56	-46	-6,4
	Txina	140	143	91	-3	-2,10	49	53,8
	Japonia	6	4	2	2	50,00	4	200,0
	Asiako beste herrialde bat	514	426	504	88	20,66	10	2,0
	Saharaz hegoaldeko Afrika	997	940	1.088	57	6,06	-91	-8,4
	Afrikako iparraldea	1.503	1.068	1.485	435	40,73	18	1,2
	Ipar Amerika	15	14	14	1	7,14	1	7,1
	Erdialdeko eta Hego Amerika	4.958	4.687	4.707	271	5,78	251	5,3
	Ozeania	3	3	4	0	0,00	-1	-25,0
	Atzerritarrak guztira	9.587	8.428	9.408	1.159	13,75	179	1,9